



## **MARTXOAK 8 ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

### **DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 8 DE MARZO**



**“Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, Mallabiko tokiko gobernuko taldeen ordezkariak konpromezu hauek hartu dituzte:**

- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;
- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez.
- Gertukoan ere, Euskal Herrian bertan, lege eta araudiek berdintasunaren aldeko marko orokorra ezarria badute ere, badugu eman beharreko urrats ugari. Mallabitik argi dugu egunerokoa eta guztion lana dela berdintasun erreala lortzeko lanari eustea, erakundeetan eta jendarteetan, lana eta enplegua baldintza duinetan banatua izan dadin, zaintza lanak partekatua izan daitezen, afektibitatea eta sexualitatea modu anitzean, libreki eta seguru bizi ahal izan dadin, estereotipoak zein rola gaitzak izan daitezen, eraso sexual eta sexistak desagertu daitezen, prekaritateak eta pobrezia emakume izena eduki ez dezaten, erabakiguneetan aritzeko aukera berak sor daitezen, besteren artean.
- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteko.
- Eta hau guztia lortzeko, jendarte eredu berritua eraikitzeko, neurri normatibo, tekniko eta ekonomiko ausartak hartu behar dira, egungo murrizketak alboratuz.
- Mallabiko Udaleko talde politikoei dei egiten die mallabitar guztiei Berdintasunaren Kontseiluak antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko.

**“En este 8 de marzo de 2016, Día Internacional de las Mujeres, representantes de los partidos del gobierno local de Mallabia se comprometen a:**

- Recordar que la democracia no se puede construir sin las mujeres, con lo que es ineludible la adopción de todas las medidas necesarias a todos los niveles (local, regional, estatal y europeo) para conseguir una participación igualitaria de mujeres y hombres en los procesos de toma de decisiones.
- Llamar a las ciudades y regiones de Europa a adquirir un compromiso formal en favor de la igualdad firmando la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, auspiciada por el CCRE-CEMR en 2006, que ha sido firmada hasta la fecha por más de 1500 ciudades y regiones.
- También en lo cercano, en Euskal Herria, aunque las leyes y reglamentos tengan un marco general, tenemos muchos pasos por dar. Desde Mallabia tenemos claro que es diario y de todos y todas la labor de mantener el trabajo para conseguir la igualdad real, en las instituciones y en la sociedad, para que se reparta el trabajo y el empleo en condiciones dignas, para que sean compartidas las labores de cuidado, afectividad y sexualidad de muchos modos, libremente y para que pueda vivir seguro, para que puedan ser superados los estereotipos como los roles, desaparezcan las agresiones sexuales y sexistas, para que no tengan nombre de mujer las precariedades y las pobrezas, para que se creen las mismas opciones para actuar en los ámbitos de decisión, entre otros.
- Tener en cuenta las necesidades específicas de mujeres y menores refugiados que huyen de la guerra y la persecución, y que llegan a nuestras ciudades y municipios; proporcionarles la acogida y la atención adecuadas y la prevención de toda clase de violencia y discriminación.
- Y para conseguir todo ello, para construir una sociedad modelo renovada, deben de adoptarse medidas normativas, técnicas y económicas valientes, apartando los recortes actuales.
- Los grupos políticos que conforman el Ayuntamiento de Mallabia hacen un llamamiento para participar en las movilizaciones convocadas por el Consejo de Igualdad.

Mallabian 2016ko martxoaren (marzo) 3an - IGOR AGUIRRE BARRIENTOS - ALKATEA